



Larrialdi humanitarioa Kolonbian

**EROSKI FUNDAZIOAK 25.000 EURO EMAN DIZKIO
DOHAINTZAN ESPAINIAKO GURUTZE GORRIARI KOLONBIAKO
LURRIKARAK ERASANDAKOEI LAGUNTZEKO**

- Erantzun humanitarioan laguntzeko balioko du ekarpenak, eta kalte-dun suertatu diren herritarren beharrik premiatsuenei erantzuteko
- Kolonbiako Gurutze Gorriak mobilizatuta ditu bilaketa eta erreskate taldeak, bai eta beste bitarteko batzuk ere seismoak eragindako larrialdiari erantzuteko.

Elorrio, 2026ko abuztuaren 14a. – [EROSKI Fundazioak](#) 25.000 euroko dohaintza bat egin dio Espainiako Gurutze Gorriari, Kolonbiako mendebaldea astindu duen 7,4ko magnitudeko lurrikarari erantzun humanitarioa emateko eta kalte-dun suertatu direnen beharrik premiatsuenak artatzen laguntzeko.

Abuztuaren 10ean izan zen seismoa, eta epizentroa Chocoko departamentuan izan zuen, non kalte pertsonal eta material handiak eragin baitzituen. Espainiako Gurutze Gorriaren azken txostenaren arabera, 12 departamentuk eta 335 udalerrik jasan dituzte kalteak: zazpi milioi laguni eragin die, 265 hil dira eta 3.500 zauritu. Horretaz gainera, kalteak eragin ditu etxe, ikastetxe eta osasun etxeetan eta errepideetan, zubietan eta oinarritzko beste azpiegitura batzuetan.

Kolonbiako Gurutze Gorriak larrialdiko erantzuna martxan du geroztik. Haren zeregina da jendea bilatu eta erreskatatzea, larrialdiko osasun arreta eta babes psikologikoa ematea, bai eta oinarritzko artikuluak banatzea ere. Espainiako Gurutze Gorriak erantzun horri laguntza ematen dihardu, Gurutze Gorriaren eta Ilardi Gorriaren Elkarleen Nazioarteko Federazioarekin koordinatuta. Espezialistak eta hornigaiak igorri dituzte hara, eta arlo askotako laguntza ematen dabilta: osasun laguntza, laguntza psikosoziala, ura eta saneamendua, behin-behineko ostalua eta oinarritzko beharren estaldura.

"EROSKI Fundazioak elkartasuna erakutsi nahi die lurrikarak jotako pertsona eta familiei, eta lagundu nahi du Kolonbiako Gurutze Gorria egiten ari den lan horretan. Horrelako larrialdietan, funtsezkoa da bizkor erantzutea eta zaurgarriena dagoen jendeari laguntzea.

**EROSKI – Komunikazio Korporatiboko
arduraduna**

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO – Prentsa bulegoa
Silvia Peralta

Tel: 917 379 950

*Ekarpen honekin gure babesa eman nahi diegu kalte-dun suertatu direnen behar premiatsuenak artatzen ari direnei", adierazi du **Alejandro Martínez Berriochoak, EROSKI Fundazioako zuzendari nagusiak.***

*"Eskerrak eman nahi dizkiogu EROSKIri larrialdi honetan emandako babesagatik. Ekarpen horri esker, indartsuagoa izango da Kolonbiako Gurutze Gorriarekin batera ematen ari garen erantzuna, eta kalte-dunen premiarik larrienak artatu ahalko ditugu, hala nola oinarri-oinarrizko artikulak, behin-behineko ostakua, osasun arreta eta laguntza psikosoziala. Ebaluazioek jarraitzen dute, eta gure helburua da baliabideak mobilizatzen jarraitzea premiarik handiena den tokietan", adierazi du **Jaime Gregorik, Aliantzatarako eta Gizarte Erantzukizunerako zuzendari nazionalak.***

Une honetan, jendea salbatzea eta pertsona zaurgarrienei asistentzia bermatzea da gure lehentasuna; bitartean, ebaluazioak egiten dihardute, ikusteko norainoko kalteak izan diren, eta larrialdiak nolako premiak eragin dituen.

EROSKI Fundazioa konprometituta dago egoera bereziki zaurgarrian diren pertsona eta komunitateen alde, eta ildo horretan etengabe egiten duen ahaleginaren parte da lankidetzak hau. Espainiako Gurutze Gorriarekin eta horrelako erakunde espezializatuarekin lankidetzan arituta, Fundazioak laguntzen du larrialdi humanitarioetan erantzuten eta kalte-dun suertatu direnen ongizatea sustatzen.

EROSKI FUNDAZIOAri buruz

EROSKIk 1997an bultzatutako ekimena da EROSKI Fundazioa, helburu duena gizartearentzako ekintza sozialeko ekimenak garatzea. Batez ere, ikerketa, berrikuntza, sustapena, hezkuntza eta kontsumitzaileen zein ingurunearen babesa dute ardatz ekimenek, eta betiere elikadura eta ohitura osasungarriak zaintzea. Gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta kohesionatuagoa sustatzen du fundazioak, jardunaren oinarrian beti interkooperatibismoa hartuta.